



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen Izena:

HLHI Fleming Herri Eskola

Ikastetxearen Kodea:

012277

Data:

2023ko maiatzaren 25a





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

HLHI Fleming Herri Eskola Villabonan kokatzen da, Arratzain eta Arroa auzoetan.

Ikastetxea dagoen gaur egungo eraikina 1978. urtean eraiki zen behar akademikoen eraginez, eta baita leku arazoak zirelako ere.

Eskolak etapa desberdinak izan ditu:

- Hasieran klaseak udaletxeko lokal batzuetan ematen ziren eta neskak eta mutilak banatuta egoten ziren, eta hala "Escuela Unitaria de niños" alde batetik, eta bestetik "Escuela Unitaria de niñas" ziren.
- Bi eskolak batzean, "Dr. Fleming" izena jarri zitzaion ikastetxeari Gerrate Zibilean zauritutako irakasle batek hala proposatuta, zeinek penizilinari esker lortu baitzuen hanka salbatzea.
- Tartean eskola leku desberdinetan kokatu ondoren, 1978. urtean Lehen Hezkuntza gaur egungo Arratzaingo eraikinean ezarri zuten, eta Haur Hezkuntza, urte batzuk geroago, Arroako auzoan.
- 1996. urtean Arratzaingo eraikina bitan banatu zen:
 - Alde batetik, Dr. Fleming ikastetxe publikoa (Lehen Hezkuntza).
 - Bestetik, Ernio-bea Institutoa (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) Aiztondo bailarako eskola guztietako ikasleentzat (Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkiza).
- Eskola hau sortu zenean, gazteleraz besterik ez zen irakasten. Ondoren, A ereduak ezarri zen, ereduaren lege barruan, pixkanaka B ereduarekin jarraituz. Azkenik eta aurreko bi ereduak baztertuz, ikastetxea D ereduaren murgildu zen eta horrela darrai.

Matrikulazioari dagokionean, momentu honetan 251 haur ditugu gure ikastetxean matrikulatuta, hauetatik 83 HH-ko etapari eta gainontzeko 168 ikasleak LH-ko etapari. LH-ri dagokionez, orokorrean maila bakoitzean bi ikasgela ditugu 2. mailan izan ezik, bertan bakarrik daukagu. Bestalde, HH-ri dagokionean, alderantzizko egoera dugu, orokorrean ikasgela bakarrik daukagu maila bakoitzean 5 urteko gelan izan ezik, bertan bi ikas talde ditugu. Ezin dugu ahaztu, ikasturtean zehar jasotzen ditugun ikasleak. Azkeneko ikasturtean, ikasturtean zehar 15 ikasle berri inguru jasotzen ditugu, gehienak beste erkidego edota herrialdeetatik datozkigularik. Momentu honetan 17 ikasle ditugu HIPIkoak.

Eskola osoa kontutan hartzen badugu, jatorri etorkina duten familien kopurua % 42 ingurukoa da. HH-ko familien jatorrien datuei begiratzen badiogu eta eskola osoko datuekin alderatzen badugu, garbi ikusten da Euskal Autonomi Erkidegoz kanpoko jatorria duten geroz eta ikasle eta familia gehiago ditugula. Beraz, azken urteetan ama hizkuntza euskara duten ikasle gutxiago matrikulatzen da gure eskolan.

Fleming Herri Eskolako komunitatearen parte guztira 186 familia dira, hauetatik 112 familiak LH-ko etapari dituztelarik beraien haurrak. Gainontzeko 74 familiak, batzuk HH-ko etapari bakarrik dituzte haurrak eta beste batzuk bi etapari. LH-ko etapari dituzten familien artean, 47 familiek dute ama hizkuntza euskara (% 41,96). Bestalde, HH-ko etapari dituzten 17 familiak dute ama hizkuntza euskara (% 26,56). Berriz ere, datu hauekin argi eta garbi ikusten da azken urteetan geroz eta aniztasun handiagoa dugula gure artean.

Ikasleen eta beren familien jatorriak alde batera utzita, eskolako ikasle bekadunen datuak ere oso esanguratsuak dira. Lehen aipatu dugun moduan, 251 ikasle ditugun gure eskolan, hauetatik 146 ikasle beka jasotzen dutelarik. Beraz, gure ikasleen % 58,17a bekaduna dugu. Honek, orokorrean gure familien maila sozio-ekonomikoa zein den argi uzten du.

Gure izaeraren ezaugarriak hauek dira:

- Eskola euskalduna

- Euskara ardatz hartuta, Fleming Herri Eskolak euskalduntze prozesua bultzatzen du eta euskal kulturaren partaide eragile izango da. Euskara gure komunitatean harremanatzeko tresna gisa erabili eta bultzatzen dugu. Beste hizkuntza eta kulturak errespetatuz, ez dakienari euskara ikastera eta erabiltzera animatuko dugu.
- Euskal kultura eta historia ezagutzeko, maitatzeko, lantzeko, sustatzeko eta transmititzeko jarduera eta konpromisoa eskatuko diogu hezkuntza komunitateko kide orori.
 - Eskola partehartzailea
- Komunitate osoaren partehartzea ahalbidetzen duen eskola nahi dugu. Guztiok iritzia libreki emateko aukera bultzatuko dugu.
 - Hezkidetzaila
- Ikaslegoari bere nortasun indibiduala osotasunean garatzeko aukera emango diogu.
 - Eskola inklusiboa
- Gure ikastetxeak ikasle guztiak kontuan izango ditu. Horretarako: norberaren ezaugarri eta identitatea errespetatuko ditu; guztien partehartzea bultzatuko du, guztien iritzi, iradokizun eta kexak entzungo ditu; baztertzailak diren jarrerak saihestuko ditu; eta benetako inklusio bat emateko, eskola barruko jardueretan familien partehartzea bultzatuko du.
 - Ingurumenarekiko ardura
- Fleming gizartearen eta ingurumenaren premiei erantzuten saiatuko da.
 - Printzipio metodologikoak
- Gure eskolak ikasketa kooperatiboaren hautua egin du.
- Teknologia berriak: Gizartean teknologia berriek duten garrantzia ikusirik, gure ikastetxeak ikasleek helburu hauek lor ditzaten du helburu:
 - Informazioa tratatzeko gaitasuna eta konpetentzia digitala lortzea.
 - Txikitatik bultzatu nahi dugu konpetentzia digitala pertsona autonomo, eraginkor eta arduratsu bilakatzeko.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Gure eskolaren azpiegitura nahiko sendoa da eta aurrerantzean aberasten joatea espero dugu. Gela guztietan daukagu ordenagailu bana eta Lehen hezkuntzako 3. zikloan ordenagailu eramangarriak erabiltzen dituzte ikasleekin.

Datuak:

- CPU: 43
- Eramangarriak: 11
- Chromebook eramangarriak: 23
- Chromebook minieramangarriak: 64
- Minieramangarriak: 18
- Arbel digitalak: 6
- Proiektoreak: 9
- Pantaila interaktiboak: 7
- Rack: 2 eraikin bakoitzean bana.
- WIFI konexioa eskolako gune guztietara heltzen da.
- Eskolako domeinua dugunez, GSUITE erabilgarri dugu: drive, classroom, calendar... **Arlo digitala kudeatzeko ez daukagu IKT arduradunik.**
- Gailuen mantenua CAU enpresak eramaten du.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Gizarteko eguneroko jardunetan sekulako aldaketak bizitzen ari gara, esate baterako: aisialdian, laneko jardunetan, erosketetan eta abarretan. Guzti hau digitalizazioaren bidez etorri da.

Era berean, Hezkuntza Sailaren 2022-2023 ikasturte hasierako ebazpenean agertzen den moduan, aurtengo eginbeharra dugu ikastetxe guztiok Ikastetxeko Proiektu Digitala (IPD) eratzea. Halaber, IPDa Ikastetxeko Curriculum Proiektuarekin (ICP) erabat erlazionatuta egongo da.

Hezkuntza gizartearekin batera garatu behar da, ikasleak gizarte honetan bizitzeko hezi behar ditugulako. Hori dela eta, gure ikastetxean proiektu digital bat diseinatzea oso aberasgarri ikusten dugu, bide bateratu bat definitzeko asmoz. Askotan gure kabuz ibiltzen gara lanean eta bakoitzak bere erara lantzen ditu bere gela edo zikloko edukiak eta askotan koordinazio jakin bat erabili gabe. Beraz, aukera ona ikusten dugu, helburu zein jarraibide desberdinak nola landuko diren diseinatzeko eta guztiok aldi berean arraun egiteko.

Hori dela eta, ikastetxeak Batzorde Digitala eratuko du IPDa diseinatu eta aurrera eramateko.

Horretarako, Europako hiru erreferentzia markotan oinarrituko da:

- DigComp
- DigCompEdu
- DigCompOrg

Bestalde, gaur egun digitalizazioa gero eta aurrerapauso handiagoak egiten dabil eta aukerak esponentzialki doaz gorantz. Ulertzen dugu, ikastetxeak egin beharreko lana hau guztia modu onean kudeatzea dela. Ikasleak, irakasleak zein familiak digitalki ahaldundu baina beti ere printzipio batzuk kontuan izanda. Kritikotasuna, errespetua, sorkuntza eta elkarlana bermatuko dituen hezkuntza bat ematea.

Proiektuarekin lortu nahi duguna, zera da:

- Ikastetxea ebaluatzea (teknologiari dagokionez).
- Estrategia bat diseinatzea ditugun gabezia eta ahuleziak kontuan izanda.
- Etengabe ikasten eta hobetzen doan ikastetxe bat izatea.
- Hezkuntza-komunitatearen partaidetza sustatzea eta inplikazioa.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasanak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Ikastetxeko proiektu digitala egiteko hauek izango dira jarraituko edo definituko ditugun pausuak hurrenez hurren:

- Digitalizazio batzordea sortu.
- Koordinaziorako egunak finkatu.
- Ikastetxearen egoera aztertu "Selfie for school" tresna erabiliz.
- Emitzak aztertu ondoren AMIA egin.
- AMIA erreferentzia bezala hartuz, helburuak (SMART metodologia aplikatuta), ekintzak eta ebaluazio adierazleak diseinatuko ditugu.
- Helburu guztiak konpetentziek in lotuko ditugu deskriptore operatiboak erabiliz, horrela, Digcomporg Europako markoari zer erreferentzia egiten dioten ikusiko dugu.

Lan hau aurrera eramateko 5 pertsonako lan taldea sortu dugu (Batzorde Digitala):

- IKTetan iaioa den irakasle bat, BeA figura, Zuzendaria, Ikasketa Burua eta Mentorea.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Diseinatuko dugun Ikastetxeko Proiektu Digitala (IPD) Ikastetxeko Urteko Planean (IUP) eta Ikastetxeko Hezkuntza Planean (IHP) txertatuko dugu. Eta IPDa osagarria eta bizia izango den dokumentua izango da.

Beraz, IPDak gure hezkuntza proiektuari bultzada ematen dio gure ikasleen artean teknologia berrien erabilpen egokia bultzatuz eta gizartearen beharretara eta eskakizunetara hurbiltzen laguntzeko. Baita irakasleen jarduna definitzeko eta familiei erantzun egokia emateko. Azkenean, hezkuntza komunitatearen aberastasuna lortzen lagunduko digu.

2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA



Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.
SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Eremu ezberdinetan egin da lanketa:

- Lidergoa
- Kolaborazioa eta sareak
- Azpiegitura eta ekipamenduak
- Etengabeko prestakuntza profesionala
- Pedagogia: laguntzak eta baliabideak
- Pedagogia: ikasgelan aplikatzea
- Ebaluazio jarduerak
- Ikasleen konpetentzia digitalak

Laburpenari erreparatu ezkerro, deigarria da hainbat eremuetan Zuzendaritza (2 kide) eta Irakasleen (20 kide) arteko ezberdintasunak.

Eremu hauetan Zuzendaritzaren balorazioa altuagoa izan da irakasleena baino.

- Kolaborazioa eta sareak
- Etengabeko prestakuntza profesionala
- Pedagogia: laguntzak eta baliabideak
- Pedagogia: ikasgelan aplikatzea
- Ebaluazio jarduerak
- Ikasleen konpetentzia digitalak

Eremuz eremu galdeketa aztertuz gero, hau da ateratako ondorioa:

- Lidergoa

Eskolak Estrategia Digitala egina du baina Curriculum berria kontutan izanik birmoldaketa bat eskatzen du. Zuzendaritza eta irakasleen arteko puntuazio desberdintasuna handia da A1 galderan. Horrek, ikuspuntu ezberdina dagoela adierazten du.

Era berean zuzendaritza eta irakasleen arteko elkarlana ikusten da hurrengo bi galderetan erantzunen puntuazioa ere altua eta berdintsua izan baita.

- Kolaborazioa eta sareak

Zuzendaritzak batez ere baxu puntuatu du (3,5) "teknologia berrien abantaila eta desabantailen inguruan ikastetxean eztabaidatzen dugu" galderaren inguruan.

Irakasleek ere galdera hori da gutxien baloratu dutena (3,1).

Ikasleek ere baxu puntuatu dute galdera hau (3,4)

Aldiz bi taldeek oso ondo baloratu dute "Teknologia berriak erabiltzen ditugu beste erakundeekin harremanetan jartzen garenean" galdera.

Irakasleek oso gutxi baloratu dituzte "beste ikastetxe edo erakundeekin kolaboratzen dugu teknologia digitalen erabilera bultzatzeko" eta "teknologia berriei dagokienez ikastetxean egiten ditugun aurrerapausoak ebaluatzen ditugu" galderetan.

Ikastetxean ebaluazioa eta hausnarketak puntuazio baxua dute eta landu beharreko gaiak izango dira aurrerantzean.

Bestalde, azken urteetan elkarlana sustatu den arren, ez dago erabat txertatua.

- Azpiegitura eta ekipamenduak

Ikastetxea azpiegitura eta ekipamendu aldetik ondo hornituta dago, eta erabakiak hainbat erabaki hartuta ditu gai hauen inguruan. Hau kontuan izanik, eta ikastetxeak egoera honi ahalik eta etekin gehien ateratzeko, hausnarketa prozesu bat martxan jartzea gaizki ez. Adibidez: IKT ardurak definitzeko...

- Etengabeko prestakuntza profesionala

Hiru galderetan Zuzendaritza eta Irakasleen arteko ezberdintasunak nabariak dira.

“Etengabeko Prestakuntza Profesionalaren inguruko eztabaida ematen dela ikastetxean” dioen galderak Zuzendaritzaren (4) puntuazioa jaso du eta Irakasleen (2,5)

Beste bi galderetan ere Irakasleen puntuazioa ez da oso altua.

“EPPetan irakasleek formakuntza jasotzeko aukerak” (3) puntu jaso ditu eta “Irakasleek teknologia digitalen inguruko beraien esperientziak kontatzeko aukera” galderak (3,5) puntu.

Zuzendaritza eta irakasleen artean dagoen ikuspuntu ezberdintasuna handia da. Lehenak sustatu nahi duen moduan, bigarrenak ez du horren beharra ikusten. Zalantzarik gabe honen inguruko hausnarketa baten beharra argi ikusten da.

- Pedagogia: laguntzak eta baliabideak

Irakasleek oso baxu puntuatu dituzte bi galdera: “baliabide digitalak sortzen ditut nire irakaskuntza metodologia indartzeko” (2,6) eta “Irakasleek ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzen dituzte ikasleekin” (2,7).

Irakasleen arteko elkarlana, material sortzea, ingurune birtualen eta digitalen erabilera indartzeko beharra ikusten da.

- Pedagogia: ikasgelan aplikatzea

Eremu honetan ere irakasleek balorazioa izan da baxu samarra. Batez ere, “ikasleen arteko elkarlana bultzatzeko teknologia berriak bultzatzea” atalean (2,6) eta “gure irakasleek ikasleek disziplinarako proiektuetan parte hartzea sustatzen dute teknologia berriak erabiliz” (2,4)

Irakasleek ez dituzte Teknologia Digitalak ikasleen aniztasuna tratatzeko erabiltzen. Bestalde, ikasleen arteko elkarlana bultzatzeko ere ez dira Teknologia Digitalak erabiltzen.

- Ebaluazio jarduerak

Ebaluazio jarduerako galderetan irakasleon aldetik puntuazio baxua jaso dugu orokorrean, baina adierazgarria da “ikasleek haien ikaskideek egindako lanen inguruko ohar konstruktiboak egiteko teknologia digitalen erabileraren ingurukoa” (1,8) irakasleen aldetik. Baita “gure irakasleek teknologia digitalak erabiltzen dituzte ikasleek haien ikaskuntzaren inguruan hausnar dezaten” galderan (2).

Ikasleen Ebaluazioa Digital mailan egiteko eman diren pausoak ez dira nahikoak izan. Betiko moduan egiten dira ebaluazioak eta Autoebaluazioa eta Koebaluazioa ez dira kontenplaten.

- Irakasleen konpetentzia digitalak

Eremu honetan orokorrean nahiko puntuazio txukuna atera dugu. Hala ere, “ikasleek besteen lana zuzena eta fidagarria den ala ez egiaztatzen ikasten dute”, “ikasleek interneten topatu duten beste pertsona batzuen lanaz fidatzen ikasten dute” eta “ikasleek teknologia digitalak erabiltzerakoan ikastetxean sortzen diren arazo teknikoak konpontzen ikasten dute” galderetan (3) baino gutxiago puntuatu dute irakasleek.

Irakasleen arteko puntuazioan argi dago ikasleek informazio fidagarria aztertzeke garaian gabeziak agertzen dituzte. Irakasleek ordea konfiantza gehiegi azaltzen dute gai honen inguruan.

AMIA analisis

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

FAKTORE NEGATIBOAK

Ahuleziak (Barne faktorea)

Gure ikastetxean, estrategia digital argi bat falta dugu.
Zuzendaritza eta irakasleen artean eraman behar da aurrera estrategia digitala.
Ikasleen profilaren inguruko hausnarketa beharrezkoa ikusten dugu.

Gure ikastetxean, teknologia digitalean ematen diren aurrerapenak ebaluatu beharko genituzke.
Gure ikastetxean, teknologia berriei ikasteak dituen abantaila eta desabantaila buruz eztabaidatu beharko genuke.
Irakasleen eta ikasleen autoebaluazioa eta berdinaren arteko ebaluazioa bultzatzea beharrezkoa ikusten dugu. Ebaluatzen ez bagara aurrerapenak murriztu eta mantsotu egiten dira.

Gure ikastetxean, ikasleek EZIN ditzakete haien gailu eramangarriak ekarri eta eskoletan erabili. (Gure erabakia da) (Agian INDARGUNE izan beharko luke)
Gure ikastetxean, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek laguntza teknologietarako sarbiderako laguntza izan beharko lukete.
Gure ikastetxean, irakaskuntza zein ikaskuntzarako materiala gordetzeko, online gordailu edo liburutegiaren beharraz jabetuta gaude.
Sortzen ditugun errekurtsioak nola antolatu eta gorde adostea falta zaigu. (Aurrekoarekin erlazioa du)

Gure zuzendaritza-irakasleek teknologia digitalekin irakastearekin lotuta dauden EPP (Etengabeko Prestakuntza Profesionala) beharrez eztabaida prozesua sustatu beharko genuke.
Robotika eta bestelako formakuntza egiteko aukeren ezagutza falta somatzen dugu.
Etengabeko Prestakuntza Profesionala beharrezkoa da arrakala digitala txikiagotzeko eta konpetentzia digitala hobetzeko. (Lehenengoarekin zerikusia du)

Gure irakasleek baliabide digitalak sortzeko aukera sustatu beharko genuke, haien irakaskuntza lana indartzeko.
Gure irakasleek ikasleekin ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzeko aukera bultzatu beharko genuke.

Gure irakasleek teknologia digitalak ikasleen trebetasunak ebaluatzeko tresna gisa erabiltzea aztertu beharko genuke.
Gure irakasleek ikasleei atzerarikadura (feedback) egokia emateko teknologia digitalak erabiltzea aukera bezala ikusi beharko genuke.
Gure irakasleek teknologia digitalak erabili beharko lituzkete ikasleek haien ikaskuntzaren gainean hausnar dezaten.
Gure irakasleek teknologia digitalak EZ dituzte erabiltzen ikasleek haien ikaskideek egindako lanari buruzko ohar konstruktiboak egin ahal izan ditzaten.
Gure irakasleek ikasleek ikastetxetik kanpo garatu dituzten trebetasun digitalak baloratu beharko genituzke.

Gure ikastetxean, ikasleek Interneten segurtasunez, era arduratsuan, Interneteko informazio fidagarria eta zuzena zein den egiaztatzen eta beste pertsona batzuen lanaz fidatzen ikasten dutela egiaztatu behar dugu.
Gure ikastetxean, ikasleek EZ dute ikasten teknologia digitalak erabiltzean sortzen diren arazo teknikoak konpontzen.
Ikasleen irteera profila eguneratzea komeni zaigu.

Mehatxuak (Kanpo faktorea)

HEZKUNTZA:

- Planifikazio eza. Hezkuntzak bideratutako plangintza berandu etorri da (ikastetxeen plangintza jada erabakita zegoenean) eta horrek plangintzak berregituratzea ekarri du. Ondorioz, irakasleek formakuntzarako denbora falta pairatu dute.
- IKT figurari dagokionez, ez da kontenplazten RPTan eta ikastetxeetan horretarako orduak eskaintzeko (beharra handia da) zailtasunak izaten ditugu.
- Google eta Office 365. Bi plataforma horiek erabiltzeak zalantzak sortzen ditu gure artean. (Eta Linux?)

CAU

- Ikastetxeetan ditugun gailuak izorratzen direnean CAUek konpontzeko denbora gehiegi behar izaten da.

FAMILIA:

- Familiek baliabideak kudeatzeko eta laguntzeko gaitasun baxua dute.

FAKTORE POSITIBOAK

Indarguneak (Barne faktorea)

Teknologia digitalean irakaskuntzako modalitate berriak lantzeko aukera dago.

Gure ikastetxean, teknologia berriak erabiltzen ditugu beste erakundeekin elkarlanean aritzerakoan.

Gure ikastetxean, beste ikastetxe edo erakundeekin kolaboratzen dugu teknologia digitalen erabilera bultzatzeko.

Gure ikastetxean, azpiegitura digitalak egokiak ditugu irakaskuntza eta ikaskuntza teknologia digitalen bidez. Era berean internet sarbide egokia dugu eta gailuez ere ongi hornituta gaude.

Gure ikastetxeak, laguntza teknikoa du teknologia digitalekin suertatzen diren arazoak konpontzeko.

Gure ikastetxean, datuak babesteko sistemak daude.

Gure ikastetxeak gailu digital ezberdinak eduki eta kudeatzen ditu. Ikasleek, behar izanez gero, eramangarriak etxera eramateko aukera dute.

Ikasturte honetan irabazi dugun espazioari esker, robotika eskaintza zabaldu dugu. Gelak hobeto antolatu eta hornitzeko aukera aprobetxatuz Steam proiektua ondo antolatu dugu.

Gaur egun ikasle guztiek ordenagailua dute eskolan. (LH 1,2,3,4,5,6)

Irakasleok mugikorrek ditugu eta aplikazioak jaisteko aukera dugu.

Gure irakasleek EPP-n parte hartzeko aukera dute teknologia digitalekin irakatsi eta ikasteari dagokionez.

Zuzendaritzak gure irakasleei laguntzen die teknologia digitalekin irakastearekin lotutako bizipenak hezkuntza-komunitatearekin partekatzen.

Eskolan egindako formakuntzak erabilgarriak izan dira.

Ikastetxeak komunikazio erregularra eta ondo antolatua du familiarekin.

Irakasle on artean, zentroan, teknologia digitalak erabiltzeko eta baliabide digitalak sortzeko lankidetzan aritzen gara. Horretarako hezkuntzako baliabide digitalak bilatzen dituzte.

Gure irakasleek teknologia digitalak erabiltzen dituzte irakaskuntza-metodoa ikasle bakoitzaren premietara egokitzeko, ikasleen sormena sustatzeko, motibatuzko eta elkarlana sustatzeko.

Gure irakasleek, ikasleek diziplinarteko proiektuetan parte-hartzea sustatzen dute, teknologia digitalak erabiliz.

Irakasleei ebaluatzerakoan teknologia digitalak erabiltzen laguntzen diegu.

Gure ikastetxean, ikasleek eduki digitalak sortzen, komunikatzen, kodetzen edo programatzen ikasten dute.

Ikasleen irteera profila egina dago.

Aukerak (Kanpo faktorea)

HEZKUNTZA:

- 2020 – 2024 ikasturteetan Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planak ikastetxeei lagundu diezaieke beraien digitalizazioaren bidean.
- Curriculum berria Ikas Egoeretan konpetentzia digitala txertatzeko aukera.

CAU

- CAUek ikastetxean ditugun gailuen mantenuan, baita haien muntaian ere, funtzionamendu ona du.

UDALA

- Azpiegitura Digitalari dagokionez, Udalak laguntza eskaintzen du behar diren lanetarako.

FAMILIA

- Familiak, orokorrean, Internet konexio ona dute etxeetan, baita gailu egokiak ere.

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Batzorde Digitala izendatu eta batzorde horrek gure ikastetxeko estrategia digitala berrikusten badu, eta bertan gure irakasle eta ikasleen eguneroko lanetan Teknologia Berriak txertatzen baditugu, garrantzitsua izango da hauek Ikas Egoera ezberdinetan ere txertatzen joatea. Horretarako, Hezkuntzak planteatzen digun planari kasu egin beharko diogu eta haren eskakizunei aurre egin beharko diegu.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Ikastetxean Teknologia Berrien inguruan eztabaidak sustatzea beharrezkoa iruditzen zaigu. Horrela, Hezkuntzak planteatzen digun marko berrian ahalik eta era eraginkorrenean txertatuko baikenituzke ikastetxean hatzeman ditugun aukera eta eskaera horiek. Era berean, ondoren txertatu ditugun ekintza horiek ebaluatzeko plan bat ere diseinatzeko garaian ikastetxe mailako eztabaida bat eragitea beharrezkoa izango litzateke.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Zuzendaritzak, gure ikastetxeko estrategia digitala berrikusten badu, eta bertan gure irakasle eta ikasleen eguneroko lanetan Teknologia Berriak txertatzen baditugu, garrantzitsua izango da ekintza horiek ondo planifikatzea. Planifikazio horrek gure eguneroko jarduna ahalik eta hobekien aprobetxatzea ekarriko luke eta denbora faltak sortzen dituen arazoak ahalik eta gehien gutxitzea.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Ikusten da egunetik egunera irakasle-ikasle harremanetan Teknologia Berriak garrantzia hartzen ari direla (batez ere goi zikloetan). Hori dela eta, irakasle-ikasle komunikazioen inguruan eztabaidak sustatu beharko ditugu irakaslearen artean. Bestalde, garrantzitsua izango da komunikazio egoera horietan trebatzea (feedback-ak nola eman...).

Gure formakuntza jarduerak berebiziko garrantzia dutela kontuan izanik, hauen inguruko plangintza estrategiko egoki bat ere interesgarria litzateke.

Azkenik, gure ikastetxean IKTak duten garrantziaz jabeturik, IKT arduradunaren orduak ez dira Hezkuntzak argitaratzen duen RPTan kontenplatuak. Hezkuntza Departamenduari eskakizun hori egitea derrigorrezkoa iruditzen zaigu. Egunetik egunera IKT arduradunaren eginkizunak gehituz doaz eta ordurik gabeko ardura jasanezina bihurtzen da.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Digitalizazio Batzordeak estrategia digitala definitzea eta planifikatzea IPDan zehaztutako ekintzak aurrera eramateko.

Deskriptorea	Epea
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da	2027-06-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.1 A1 Estrategia digitala dokumentu/kronograma batean idatzi da.	Bai/Ez	Bai
LG 1.1 A2 Proiektu digitala idatzi da.	Bai/Ez	Bai
LG 1.1. A4 IPDa irakasleen harrera planean eta IUPean txertatu da.	Bai/Ez	Bai
LG 1.1. A5 Estrategia Digitalaren kronograma prestatu da.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Batzorde Digitala sortu, hedatu eta egitura mantendu.	Batzorde Digitala sortzeko akta.	Zuzendaria	2023/09/15	Detektatua
IPDa martxan jarri eta gauzatu.	IPDa	Beñat Sarasola (Mentorea)	2024/05/30	Detektatua
Ikastetxeko klaustroan arlo digitalaren inguruan hausnarketa prozesu bat ireki. (Ikastetxearen ibilbidea zehazteko)	Galdetegia, erantzunak...	Zuzendaritza	2023/11/30	Detektatua
Irakasleen harrera planean IPDa txertatu.	Harrera Plana eta IPDa	Ikasketa Burua	2023/09/15	Detektatua
IUPean IPDa txertatu.	IUPa eta IPDa	Ikasketa Burua	2023/10/30	Detektatua
Irakaslegoari ikastetxeko Estrategia Digitalaren berri eman.	IPDa	Beñat Sarasola (Mentorea)	2023/09/30	Detektatua
Estrategia Digitalaren barruan egingo diren ekintza guztien kronograma bat prestatu.	Kronograma	Beñat Sarasola (Mentorea)	2023/09/30	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Digitalizazio Batzordeak ikastetxeko mailaz mailako behar digitalei erantzunez, irakasleen gaitasun digitala neurtzea, ikasleen irteera profilean jasota dagoenari erantzuteko.

Deskriptorea	Epea
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2024-06-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A2 Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa egiteko erabiliko den irakaslearen koaderno digitala.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Koaderno digitalaren inguruko hausnarketa aurrera eraman.	Jasotako akta Galdetegia	Ikasketa Burua	2024/5/30	Detektatua
Hausnarketarako galdetegia sortu	Galdetegia	IKT arduraduna	2024/03/01	Detektatua
Dagoen koaderno digitala berrikusi eta moldatu.	Koaderno Digitala	IKT arduraduna	2024/06/30	Detektatua

Helburua

Digitalizazio Batzordeak ikastetxeko mailaz mailako behar digitalei erantzunez, irakasleen gaitasun digitala neurtzea, ikasleen irteera profileen jasota dagoenari erantzuteko.

Deskriptorea	Epea
II 1.3 Pertsonalaren eta ikasleen gaitasun digitalaren (GD) konparatiboa egiten da.	2026-06-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.3 A1 Irakasleen gaitasun digitala ebaluatzen da (Selfie for teachers)	Bai/Ez	Bai
II 1.3 A2 Ikas-egoeran ikasleen gaitasun digitalaren irizpideak txertatu dira.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
"Selfie for teachers" tresna erabiliz, irakasleriaren konpetentzi digitala neurtu.	"Selfie for teachers" tresna	Beñat Sarasola	2024/5/30	Detektatua
Klaustro mailan ikastetxean erabiliko diren baliabideen inguruan hausnartu.	Galdetegia, dokumentuak, informazio iturri ezberdinak	Ikasketa Burua	2024/2/28	Detektatua
Klaustro mailan ikastetxean erabiliko diren baliabideen inguruan erabakiak hartu.	Jasotako akta	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2024/4/30	Detektatua
Ikasleen irteera profilaren inguruan hausnarketa bat egin.	Galdetegiak, akta.	Ikasketa Burua	2024/11/30	Detektatua
Mailaz maila ikasleen irteera profila digitala ondo zehaztu.	Ikasleen irteera profila digitala dokumentua	IKT arduraduna	2024/12/22	Detektatua
Irakasleek duten behar digitala hauteman. (Galdetegi baten bidez)	Galdetegia	IKT arduraduna	2025/10/31	Detektatua

Ikasturtean zehar (datorren ikasturteari begira) irakasleek duten behar digitala hauteman. (Galdetegi baten bidez)	Galdetegia	IKT arduraduna	2026/4/30	Detektatua
Galdetegia sortu	Galdetegia	IKT arduraduna	2025/9/30	Detektatua

Helburua

Digitalizazio Batzordeak ikastetxeko mailaz mailako behar digitalei erantzunez, irakasleen gaitasun digitala neurtzea, ikasleen irteera profilean jasota dagoenari erantzuteko.

Deskriptorea	Epea
II 2.6 Sormena sustatzen da	2026-05-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.6 A2 Robotikako jarduerak txertatu dira.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Steam proiektua berrikusi	Proiektua	Zuzendaritza	2024ko martxoa (deialdia)	Detektatua
Steam proiektua aurrera eraman	Proiektua	Zuzendaritza	2025eko iraila	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua

Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Profesionala garatuko duen plangintza definitzea, barne eta kanpo formakuntzaren bidez, digitalki klausuro konpetentea izateko.

Deskriptorea	Epea
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin	2026-06-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A1 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasleentzat, hainbat interes pedagogiko duten tresna digitalei buruz.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxean formakuntza digitalaz arduratuko den pertsona/taldea izendatu.	Akta	Digitalizazio Batzordeko kidea	2024/9/15	Detektatua
"Selfie for teachers" tresnak emandako emaitzak aztertu eta horren arabera irakasleek dituzten behar digitalak	Digitalizazio Formakuntza plana dokumentua	Digitalizazio Batzordeko kidea	2024/9/15	Detektatua

hauteman eta hobetzeko formakuntza plan bat diseinatu.				
Ikastetxeko maila/ziklo bakoitzak behar duen profil digitala zehaztu.	Ikasleen irteera profila digitala dokumentua	Beñat Sarasola (Mentorea)	2025/12/22	Detektatua
Irakasleen beharren araberrako formakuntza plan bat diseinatu.	Digitalizazio Formakuntza plana dokumentua	Digitalizazio Batzordeko kidea	2026/2/28	Detektatua
Irakasleen beharren araberrako formakuntza plana aurrera eraman.	Digitalizazio Formakuntza plana dokumentua	Digitalizazio Batzordeko kidea	2026/6/30	Detektatua
Ikastetxez kanpo (hezkuntzak, beste eragile batzuk...) digitalizazioaren inguruan eskaintzen dituzten formakuntza ikastaroen berri eman klaustroari.	Emaila	Zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Detektatua
Ikastetxeko egunerokoa, bai metodologikoki, bai pedagogikoki, interesgarriak diren baliabide digitalak bilatu, sailkatu eta elkarbanatu.	Gordailua	Batzorde Digitaleko arduraduna	Ikasturtean zehar	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Ikastetxeko konpetentzia digitala neurtzeko, irakasle eta ikasleen konpetentzia digitala ebaluatzea, baliabide digitalak sortuz eta martxan jarri.

Deskriptorea	Epea
EJ 1.4 Inguruko informazio aberatsa, pertsonalizatua eta garrantziduna jasotzea bultzatzen da eta espero da.	2025-06-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.4 A1 Ikastetxeak errubrika-banku bat sortu eta antolatu du.	Bai/Ez	Bai
EJ 1.4 A2 Irakasleek Irakasle koadernoak erabiltzen dute ikaslea ebaluatzeko.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleen konpetentzia digitalean aurrera eraman diren jarduerak eta erabili diren baliabideak berrikusi.	Ebaluatzeko baliabideen dokumentua	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2024/9/15	Detektatua
Ikastetxean ebaluatzeko diseinatutako diren jarduerak eta erabiliko diren baliabideak zehaztu mailaz maila.	Ebaluatzeko baliabideen dokumentua	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2024/12/22	Detektatua
Ikasleek erabiltzeko autoebaluazio eta berdinen arteko ebaluazio txantiloak prestatu.	Ebaluatzeko baliabideen dokumentua	IKT arduraduna	2024/12/22	Detektatua
Ikasleek erabiltzeko autoebaluazio eta berdinen arteko ebaluazio txantiloak ikas egoeratan txertatu.	Ikas egoerak	Ikasketa Burua	2025/6/30	Detektatua
Ikasleei eman beharreko atzeraelikaduraren inguruan hausnartu klaustro mailan.	Jasotako akta	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2024/3/30	Detektatua

Ikasleei eman beharreko atzeraelikaduraren inguruan erabakiak hartu.	Jasotako akta	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2024/5/30	Detektatua
Koaderno digitalean ebaluazio digitaleko irizpideak txertatu	Koaderno Digitala	Ikasketa Burua	2025/6/30	Detektatua

EC Edukiak eta Curriculuma

Helburua

Irakasleek sortutako materiala eguneroko programazioetan, ikas egoeretan... txertatzea eta era berean ikastetxean ondo eratuta dagoen gordailu digitala erabiltzea bertan materiala gordetzeko.

Deskriptorea	Epea
EC 1.2 Edukiaren biltegiak zabalki eta modu eraginkorrean erabiltzen dira	2024-05-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.2 A2 Departamentuak/mailek/zikloek lan-prozedura bat eta egutegi bat dituzte ezarrita, lineako ikaskuntzako ingurune digitalari jarduera-eduki berriak, adibideak eta hezkuntza-baliabideak emateko.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxeko material digitala ondo gordetzeko bidea ondo zehaztu eta eguneratuta mantendu protokolo baten bidez.	Sortuko den protokoloa	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2023/12/22	Detektatua
Irakasleek erabiltzen dituzten baliabide ezberdinen zerrenda osatu eta guztien eskura jarri.	Baliabideen zerrenda	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2024/5/30	Detektatua
Ikastetxeko Curriculum Proiektuan ikasleen irteera profila jaso.	ICPa, ikasleen irteera profilaren dokumentua	Zuzendaria	2024/2/28	Detektatua
Ikastetxeko Curriculum Proiektuan arlo ezberdinetan landu beharreko gaitasun digitalen garapenaren inguruko hausnarketa bultzatu.	ICPa	Ikasketa Burua	2024/5/30	Detektatua

Helburua

Irakasleek sortutako materiala eguneroko programazioetan, ikas egoeretan... txertatzea eta era berean ikastetxean ondo eratuta dagoen gordailu digitala erabiltzea bertan materiala gordetzeko.

Deskriptorea	Epea
EC 1.3 Jabetza intelektualeko eta copyright eskubideak errespetatzen dira	2025-06-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.3 A1 Departamentuak/mailek/zikloak lineako ikaskuntzaren ingurune digitalean eskaintzen diren edukien, jardueren, adibideen eta hezkuntza-baliabide digitalen multzoa definitua eta argitaratua dute.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleek sortzen duten eduki digitala ondo lizentziatzeko gida sortu.	Creative Commons	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2025/2/28	Detektatua
Irakasleek sortutako materiala lizentziatuta dagoela ziurtatu	Creative Commons	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2025/6/30	Detektatua

EN Elkarlana eta Networking-a

Helburua

Eremu Digitalean ditugun ezagutzak (irakaskuntza/ikaskuntza baliabideak, esperientziak...) partekatzea, bai ikastetxeko beste profesionalekin baita inguruko beste ikastetxeetako profesionalekin, horretarako behar den sarea sortuz.

Deskriptorea	Epea
EN 1.2 Ezagutza trukatzeko ahaleginak errekonozitzen dira	2025-05-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.2 A1 Ikastetxeak eremu digitalean esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk planifikatu ditu.	Bai/ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleek esperientzia eta ezagutzak elkar trukatzeko momentuak planifikatu.	Bileraren akta	Batzorde Digitaleko arduraduna	2024/10/15	Detektatua
Irakasleek esperientzia eta ezagutzak elkar trukatu.	Irakasleen esperientziak	Batzorde Digitaleko arduraduna	2025/5/30	Detektatua

Helburua

Eremu Digitalean ditugun ezagutzak (irakaskuntza/ikaskuntza baliabideak, esperientziak...) partekatzea, bai ikastetxeko beste profesionalekin baita inguruko beste ikastetxeetako profesionalekin, horretarako behar den sarea sortuz.

Deskriptorea	Epea
EN 2.2 Agerikoa da online presentzia dinamikoa	2024-05-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 2.2 A1 Ikastetxeak ikastetxearen komunikazio-plana, eguneratze-bitartekoak eta -prozedurak zehaztu ditu, hezkuntza-komunitateak, web-orriaren bidez, oinarritzko dokumentazioa, proiektuetan parte hartzeari buruzko informazioa eta ikastetxeak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazioa eskura izan ditzan.	Bai/ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Barne zein kanpo komunikazioaz arduratuko den pertsona/taldea izendatu.	Jasotako akta	Zuzendaria	2023/9/15	Detektatua

Komunikazioaz arduratuko den pertsona/taldearen zereginak/ardurak zerrendatu.	Jasotako dokumentua/akta	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2023/9/15	Detektatua
Barne komunikazioa gauzatzeko bideorria ezarri/eguneratu.	Bideorria edo protokoloa	Zuzendaria	2023/9/15	Detektatua
Kanpo komunikazioa gauzatzeko bideorria ezarri/eguneratu.	Bideorria edo protokoloa	Zuzendaria	2023/10/15	Detektatua
Ikastetxeak komunikatzeko erabiltzen dituen bideak (web orria, sare sozialak, bloga, emaila...) finkatu eta funtzionamendua zehaztu.	Bideorria edo protokoloa	Zuzendaria	2023/10/15	Detektatua
Aiztondo mailako komunikazio sarea sortu.	Komunikazio sarea eratzearen akta	Mentorea	2024-05-30	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua

Digitalizazio Batzordeak adostuta, ikastetxeko hornidura teknologikoa egonkortu (beharrak eta aurreikuspenak hauteman) eta IKTKo sailaren eginkizunak, ardurak eta bere egitura planifikatzea, lan jarduna sistematizatzeko.

Deskriptorea	Epea
AZ 2.6 Agerikoak dira laguntza teknikoa eta erabiltzaileari arreta ematea	2024-05-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.6 A3 Ikastetxeak zehaztu ditu ikastetxeko baliabide teknologikoen erabilgarritasun operatiboa bermatzeko beharrezkoak diren denborak eta baliabide pertsonalak, eta AJAn finkatu dira, datuak biltzeko protokolo bat ezarri sistemaren eraginkortasuna aztertzeko.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IKT saila ikastetxeko langileen organigraman sartu.	Ikastetxeko organigrama/arduren taula	Zuzendaria	2023/9/15	Detektatua
IKT sailaren ardurak/zereginak zehaztu.	Jasotako akta	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2023/9/15	Detektatua
IKT sailarentzako aurrekontu bat aurreikusi.	Aurrekontu dokumentua	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2023/9/15	Detektatua

Helburua

Digitalizazio Batzordeak adostuta, ikastetxeko hornidura teknologikoa egonkortu (beharrak eta aurreikuspenak hauteman) eta IKTKo sailaren eginkizunak, ardurak eta bere egitura planifikatzea, lan jarduna sistematizatzeko.

Deskriptorea	Epea
AZ 1.2 Ikaskuntza-ingurune birtualak optimizatzen dira.	2024-05-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
------------	------	---------

AZ 1.2 A2 Zentroak jarduera-protokolo bat du, eta, bertan, lineako ikaskuntza-ingurunea eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eta horiek mantentzeko/eguneratzeko eragiketak zehazten dira, operatibo egon daitezzen.	Bai/Ez	Bai
---	--------	-----

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxeko gailu digitalen inbentarioa eguneratuta mantendu.	Inbentarioa	Ikastetxeko idazkaria	2023/06/30	Detektatua
IKT sailak ikastetxeak beharko duen hornidura teknologikorako irizpideak zehaztu.	Hornidura teknologikorako irizpideen dokumentua	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2023/12/22	Detektatua
IKT sailak ekipamendu eta baliabide digitalen gorabehera eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko protokoloa sortu.	Gorabeherak eta matxurak komunikatzeko protokoloa	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2023/10/15	Detektatua
Irakasleen harrera planean protokolo hori jaso.	Harrera plana	Ikasketa burua	2023/10/15	Detektatua

Helburua
Digitalizazio Batzordeak adostuta, ikastetxeko hornidura teknologikoa egonkortu (beharrak eta aurreikuspenak hauteman) eta IKTKo sailaren eginkizunak, ardurak eta bere egitura planifikatzea, lan jarduna sistematizatzeko.

Deskriptorea	Epea
AZ 2.1 Erabilera arduratsurako arauak daude ezarrita	2024-05-30

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.1 A1 Ikastetxeak protokolo bat du, datuen babesari buruzko legearen arabera pribatutasuna eta datuen babesa bermatzeko beharrezko neurriak zehazten dituena.	Bai/Ez	Bai
AZ 2.1 A2 Ikastetxeak prestakuntza-saioak (tutoretza-saioak) eta ikasleentzako materialak zehaztu ditu, teknologia digitalak gaizki erabiltzeak dakartzan arriskuak eta lineako inguruneak erabiltzeko portaera-arau onargarriak hobeto ezagutzeko.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxeak datuen babesari buruzko legea betetzeko protokoloa sortu.	Datuen babesari buruko protokoloa	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2023/11/15	Detektatua
Irakasleen eta ikasleen ahalduentze digitala handituko dituen jarduerak antolatu.	Jardueren plangintza	Digitalizazio Batzordeko arduraduna	2023/11/15	Detektatua

IB Ikastetxeko Berriazkoak

Helburua

Deskriptorea	Epea

Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Digitalizazio Batzordeak estrategia digitala definitzea eta planifikatzea IPDan zehaztutako ekintzak aurrera eramateko.	FASE 1 2023-10-30 Urtero errepikatuko da. FASE 2 2024-5-30 Urtero errepikatuko da.	FASE 1 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, sortutako akta FASE 2 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, galdetegia	Digitalizazio Batzordeak		
II	Digitalizazio Batzordeak ikastetxeko mailaz mailako behar digitalei erantzunez, irakasleen gaitasun digitala neurtzea, ikasleen irteera profilean jasota dagoenari erantzuteko.	2024-6-30	Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, koaderno digitala	Digitalizazio Batzordeak		
II	Digitalizazio Batzordeak ikastetxeko mailaz mailako behar digitalei erantzunez, irakasleen gaitasun digitala neurtzea, ikasleen irteera profilean jasota dagoenari erantzuteko.	FASE 1 2024-5-30 FASE 2 2024-12-22 FASE 3 2026-04-30	FASE 1 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, galdetegia, sortutako akta. FASE 2 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, irakasleen profil digitalaren dokumentua FASE 2 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, galdetegia	Digitalizazio Batzordeak		
II	Digitalizazio Batzordeak ikastetxeko mailaz mailako behar digitalei erantzunez, irakasleen gaitasun digitala neurtzea, irakasleen irteera profilean jasota dagoenari erantzuteko.	2025-09-30	Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, Steam proiektua	Digitalizazio Batzordeak		
GP	Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Profesionala garatuko duen plangintza definitzea, barne eta kanpo formakuntzaren bidez, digitalki klaustro kompetentea izateko.	FASE 1 2024-6-30 Urtero errepikatuko da FASE 2 2024-9-15	FASE 1 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, emaila, gordailua. FASE 2 Kronogramako ekintzen kontrol	Digitalizazio Batzordeak		

		FASE 3 2026-06-30	zerrenda, formakuntza plana. FASE 3 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, ikasleen irteera profila, formakuntza plana			
EJ	Ikastetxeko konpetentzia digitala neurtzeko, irakasle eta ikasleen konpetentzia digitala ebaluatzea, baliabide digitalak sortuz eta martxan jarriz.	FASE 1 2024-5-30 FASE 2 2024-12-22 FASE 3 2025-06-30	FASE 1 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, akta. FASE 2 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, ebaluatzeko baliabideen dokumentua. FASE 3 Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, ikas egoerak, koaderno digitala	Digitalizazio Batzordeak		
EC	Irakasleek sortutako materiala eguneroko programazioetan, ikas egoeretan... txertatzea eta era berean ikastetxean ondo eratuta dagoen gordailu digitala erabiltzea bertan materiala gordetzeko.	2024-05-30	Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, protokoloa, baliabideen zerrenda, ICPa, ikasleen irteera profilaren dokumentua	Digitalizazio Batzordeak		
EC	Irakasleek sortutako materiala eguneroko programazioetan, ikas egoeretan... txertatzea eta era berean ikastetxean ondo eratuta dagoen gordailu digitala erabiltzea bertan materiala gordetzeko.	2025-06-30	Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, Creative Commons dokumentuak	Digitalizazio Batzordeak		
EN	Eremu Digitalean ditugun ezagutzak (irakaskuntza/ikaskuntza baliabideak, esperientziak...) partekatzea, bai ikastetxeko beste profesionalekin baita inguruko beste ikastetxeetako profesionalekin, horretarako behar den sarea sortuz.	2025-5-30	Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, akta	Digitalizazio Batzordeak		
EN	Eremu Digitalean ditugun ezagutzak (irakaskuntza/ikaskuntza baliabideak, esperientziak...) partekatzea, bai ikastetxeko	2023-10-15	Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, akta, protokoloa	Digitalizazio Batzordeak		

	beste profesionalekin baita inguruko beste ikastetxeetako profesionalekin, horretarako behar den sarea sortuz.					
AZ	Digitalizazio Batzordeak adostuta, ikastetxeko hornidura teknologikoa egonkortu (beharrak eta aurreikuspenak hauteman) eta IKTKo sailaren eginkizunak, ardurak eta bere egitura planifikatzea, lan jarduna sistematizatzeko.	2023-9-15	Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda	Digitalizazio Batzordeak		
AZ	Digitalizazio Batzordeak adostuta, ikastetxeko hornidura teknologikoa egonkortu (beharrak eta aurreikuspenak hauteman) eta IKTKo sailaren eginkizunak, ardurak eta bere egitura planifikatzea, lan jarduna sistematizatzeko.	2023-6-30	Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, protokoloa, harrera plana, inbentarioa	Digitalizazio Batzordeak		
AZ	Digitalizazio Batzordeak adostuta, ikastetxeko hornidura teknologikoa egonkortu (beharrak eta aurreikuspenak hauteman) eta IKTKo sailaren eginkizunak, ardurak eta bere egitura planifikatzea, lan jarduna sistematizatzeko.	2023-11-15	Kronogramako ekintzen kontrol zerrenda, protokoloa, jardueren plangintza	Digitalizazio Batzordeak		
IB						